

EUSKARA TESTAMENDU ETA AZKEN-NAHIETAKO IDATZIETAN

Bilbo, 1992-IV-24

Patxi Zabaleta

1. HIZKUNTZAREN ERABILPEN OFIZIALA ETA BIZIMODUA

Gauza jakina da pertsonaren bizimoduan, edozein pertsonaren bizimoduan, erakunde eta Administralgoarekiko harremanak gero eta ugaria-
goak eta gero eta garrantzitsuagoak bihurtu direla. Ezinbesteakoak gehienetan.

Gizarteko harremanak, jaiotze ber beretik hasi eta hilobirainokoak, (edo errahusterainokoak) gero eta gehiagotan loturik daude Administralgoarekiko harremanen sareetan. Baimenak, berriemateak, eskakizunak, erregistroak, aseguntzak, pentsioak, zergak, subentzioak, jubilazioak, salneurriak, osasun zaintzeak, heritetxeak, zaharretxeak... Eta hori guztia komunidabideek gure inguruan sortu duten saretzar guztiarekin eskutik harturik gainera.

Pertsona bakoitzaren bizimodua eta bizibidea bera ere harreman guzti horietatik zintzilik eta askotan horien menpean gelditu da.

Harreman guzti horietan, bitarteko diren tresnetako bat, ez bakarria alegia, idazki ofizialak dira. Idazkiak, izkiriaturak, eskriturak... Idazki ofiziala edo publikoa, pertsonala soilik ez dena alegia, gizarte osoarengan ondorioak izan ditzakeena da; eta ez bakarrik pertsona bat edo batzuen-
gan eraginik duena, baizik eta beste hirugarren batzuekin eta gizarteko harremanei dagokionez eragina eta ondorioak dituena.

Horren ondorioz eta ziurtasun juridikorako, idazki publiko horiek alde batetik mota ezberdinetako Erregistro edo zerrendakin publikoetara eramanez ahalak edo eramanez beharrekoak ohi dira; eta bestalde fede publiko deitutakoaren fidagarritasunaz orniturik daude.

Idazki publiko eta ofizial horiek pertsona bakoitzak bere hitzarmenak, eskakizunak eta borondate edo nahimen adierazpenak egiteko eta

ezartzeko erabil ditzake. Baina baita ere bete beharrak zehaztu eta onartzeko, ondasunak zaintzeko eta ziurtasun juridikoa, gizarteko bere harremanetako, besteekin zuzpertzeko.

Idazki horietako batzu ordea, gehienak, herritarrek beren borondatez eta aukeraz hastaspena emanez sortzen dira. Hau da, pertsonen edo herritarren borondatea eta nahia dira idazki horien taiua eta hizkuntza baldintzatzen dituen oinarri eta iturburua.

Baina gaur egun halere, zenbat idazki, zenbat eskritura egiten da euskaraz?, zenbat euskaldunek eskatzen ote du euskaraz egin dakizkion eta euskaraz ipin daitezen berak euskaraz pentsatu dituenak, euskaraz esan dituenak eta, ziur aski, euskaraz hobekienik ulertuko lituzkeenak? Eta ikusiko dugun bezala, hori hain gutxitan gertatzen baldin bada, zergatik?

Soziolinguistikako arazo eta eztabaidatan gehigi murgildu gabe esta zerbakiak ematen hasi baino lehen zera aitortu nezake betiere, euskaldunok —oro har— ez dugula oraindik behar hainako konfidantzarik geure hizkuntzarekin. Mendeak zehar atzera jo beharko genuke horren arrazoinen bila, latinera, Administralgoaren izaerara, soldaduskak hainbestetan ezarri duen herbesteratze horretara, Erdi Aroko gizarte motara agian eta abar. Baina ikus ditzagun zerbaki batzu!

2. AZKEN URTE HAUETAN EUSKARAZ EGIN DIREN IDAZKI edo IDATZI NOTARIALAK

— Beste erabilpen ofizialez beste lan batean arituko naiz. Oraingoan izkribu edo idazki publikoez mintzatuko naiz...

Hegoaldeko Euskal Herria Notaria barrutiei dagokionez bi zatitan banaturik dago. Iruñeko barrutikoak dira, oraindik, Gipuzkoan eta Nafarroan ari diren Noratiak; lehen izkiriauak deitzen zirenak; Leitza eta Larraun aldean berriz ‘exkurrauak” deitzen ziren eta deitzen dira oraindik (bada gainera Leitza *EXKURRAUEN BORDA* izen zaharra duen baserria). Araban eta Bizkaian lantokia duten exkukendurrauak berriz, Bilboko Notaria barruti edo Kolejiokoak dira.

Hona Gipuzkoa eta Nafarroa osoan azkeneko zortzi/hamar urte hauetan kendu euskaraz egin diren idazki notarialen zerrenda:

1.—SALEROSKETAK.....	25
2.—AZKENAHIK (TESTAMENDUAK).....	25
3.—ORDEZKARITZA AGINTEAK.....	8
4.—TRUKAKETAK.....	1
5.—ELKARTEAK.....	2
6.—DIRU MAILEGUA.....	1

Gaur egun Nafarroan eta Gipuzkoan ari diren exkurrau guztiei galde egin zaie eta beraien bulegoetatik eman diren zehaztapenetatik ateratakoa da berri hori. Iruñeko Notaria Barrutiko bulegoko arduraduna den Joakin Azpirotz jaunak egin du galdaketa 1992.ko apirilak 22.an.

Exkurrauek egiten dituzten idazkiak hoegi urtez eduki ohi dira bakoitzaren bulegoan; baita exkurraua bera aldatzen bada ere. Gero Notaria Barrutiko egoitzetara beretara eramaten dira eta azkenik ehun eta hogeitaz urte ondoren Dokumenduen artxibategira sartzen dira. Horrengatik bada, nahiz eta gaur egun dauden exkurrau guztiak ez daramaten oraindik zortzi edo hamar urte, beren bulegoetan epe horietako idazkien berriak jakinak dira eta beraien erantzunetatik jaso da, goian aipatutako laburpena. Iruñean urterik gehiena daraman Exkurrauek, Juan Garzia Granero jaunak alegia, ia hogeitamar urte darama eta bere bulegoan ez da inoiz egin izan ez euskaraz egindako idazkirik eta eztaere ez du inoiz eskariarik eduki.

Baina bere laguntzaile nagusia den Migel Anjel Moreno, Notariako Ofizialak dioenez, lehenago beste hamabi urtez lan ber berean aritu omen zen Don Juan San Juan Otermin exkurrauentzat. Azkeneko hau Lakuntzako zen, euskaraz bazekiena, baina exkurrau edo notaria jaun horrek ere ez zuen, gutxienez bere azkeneko hamabi urte horietan ere, idazkirik euskaraz egin. Are gehiago, exkurrau honek, nahiz eta euskara maite izan eta gainera pozik erabili bere herrikoekin batez ere, lotsa pixka bat bezala omen zuen euskaraz ari zenean. Eta bitxikeria bada ere adierazgarria da, bere lantegian aritutako Moreno Jaunak dioena aipatzea: langelako atea beti eta edozertarako irekirik edukitzen omen zuen San Juan notaria zenak, bi kasu zehatzetan ezik, emaztearekin hitzegin behar zuenean eta euskaraz hitzeginen zuenean; Ez beste inoiz!

Eta non egin ote dira euskaraz idatzitako horiek ordea?

Nafarroari dagokionez, Elizondon ez da idazkirik egin euskaraz azkeneko zortzi urte hauetan; eztaere Lesakan, ez Altsasun eta eztaere Lekunberrin. Erribeheran zer esanik ez. Iruñean berriz azkeneko bost urte hauetan bakarrik bi idazki edo eskritura egin da euskaraz: Ordezkaritza aginte bat (: poder bat) eta azkenahi edo testamendu bat. Eta ez besterik.

Gipuzkoan berriz, ez da idazki bat bakarrik euskaraz egin, gezurra badirudi ere, azkeneko zortzi/hamar urte hauetan hurrengo herri hauetan: Azpeitia, Segura, Zumaia, Hondarribia, Hernani, Pasaia, Errenteria, Ordizia, Beasain, Bergara, Elgoibar, Oñati eta Zumarragan; exkurraua duten herriak aipatu dira alegia eta gogoan izanik herri horietako exkurrau bakoitzak baduela beste herri mordoxka bat ere bere lanaren adierazpenetarako. Zarautzen 12 salerosketa egin da euskaraz eta bi azkenahi edo testamendu; Eibarren, bi testamendu eta Tolosan Ordezkaritza bat; Arrasaten salerosketa bat eta trukaketa bat.

Gogoan izan behar da gainera esate baterako udalek beren lekukoa den exkuarrarekin idazkiak egitera beharturik daudela eta ondorioz batzuetan harritzekoa eta guzti dirudi egoera honek, gogoan izanik euskara hutsa erabiltzen saiatzen diren herriak badaudela eta elebiduna aitortzen den Administralgo bat dagoela.

Gainera, Gipuzkoan, exkurrau edo notaria jaun batek bakarrik (eta notaria jaun hori, Pedro Baraibar jauna jatorriz nafartarra da) eginak ditu guzti horietatik: 12 salerosketa; 20 azkenahi edo testamendu; 1 diru mailegua edo zorketa; 6 ordezkari aginteak; eta 2 elkarte.

ARABARI dagokionez Don Alfredo Perez Avila jaun Notaria da euskaraz idazkiak egin dituen. Exkurrau honek esaten didanez lehen Ondarroan egon zen, gero berriz Bergaran; eta leku horietan egin zituen euskaraz lanen batzu; ondoren Gasteizera joan zen eta hor, berak dioenez, azkeneko urte hauetan SEI idazki edo eskritura ditu euskaraz egindakoak; horietarik bi azkenahiak dira; beste bi berriz salerosketako hitzarmenak; bat, elkarte baten sortze eta tajutzea; eta azkenik beste bat, senar emazte arteko elkargoari eginiko emaitza edo ahortaketa bat.

BIZKAIARI dagokionez Andres Urrutia Ondarroako exkuarrarekin eta Don Juan Ramon Manzano Malecheberria Bilbon ari denarekin hitzegin da. Urrutia jaunak dioenez urtean 35 idazki inguru egiten ditu, urte osoan egiten diren 1.700 idazkien artetik. Horietatik 6/7 salerosketak dira; besteak berriz ordezkariak edo poder edo aginteak, gero testamenduak, diru maileguak, eta abar. Manzano jaunak aditzera ematen duenez euskaldun berriak dira batez ere euskaraz egindako idazkiak eskatzen dituztenak, eta ez euskaldun zaharrak, nahiz eta behar bada Ondarruko kasua aztertu beharko litzatekeen berezia bezala. Eta beste berezitasun bat, testamenduak edo azkenahiak han hemenka ugaritzen ari diren bitartean, oinordekotza onartu eta eskuratzeko egin behar diren idazkien adibiderik ez da askotan ageri, nahiz eta hor diren, elebidun bezala eginak Bergarako Olaso Dorreko Fundazio edo erakundearen sorrerak eta holakoren batzu.

Bizkaiko Aldundiko idazkiek ere aipamen berezia merezi dute, zeren eta J.M. Makuaz geroztik, hau da Makua jauna diputatu nagusi izanenez geroztik, eta nonbait hark emandako aginduak tinko diraelko edo, beti elebidunak egiten omen dira.

Gainera aipatu beharko litzateke ere beste baldintza eta mugapen garrantzitsu bat, hona zein alegia: idazkirik edo izkiriaturarik gehien gehienak ondoren beren indarrari eta baliobideari eusteko, errejistroren batean igaro eta ezarri behar izaten dira. Salerosketa edo jabegoa adierazten dutenak propietatearen errejistroan; elkarteak merkantilean; errejistro zibilean berriz ezkontzaren ondoriozko aldaketa eta berezitasunei dagozkionak; azkenahiak ere azkeneko nahien errejistroan. Eta esate

baterako Nafarroan, nahiz eta euskara ofiziala izan lur eremu batean, gero lurralde horretan egiten diren izkiriatura notarialak beste nonbait eta ez lurralde euskaldunean dagoen erregistroan ezarri eta onartu behar dira. Esate baterako Elizondon egindakoa Iruñean. Baina gainera azken nahien erregistroa bat bakarrik da estatu guztian, Madrilen hain zuzen ere.

Bestalde ohitura nire ustez txar bat eta guztiz gaitsetsi beharrekoa mamitzen ari da ere guzti honen inguruan eta zera da, itzulpenak erabiltzearena. Idazkiak espainolez egin, badaezpadare baserritarren batek esanen lukeen bezala eta gero ondoren itzulpenak erabili, ziurtaturik badira ere... Horrelakorik maizegi egiten hasi ote direlakoan nago. Gainera Juan Ramon Manzano exkurrau jaunak dioenez, mailegu hitzarmenak egiterakoan beste arazoren bat ere sortzen da, eta hain zuzen ere, aurrezki kutxatako ordezkariak sortzen dituzten istiluak eta gora beherak eta kezak eta zalantzak direla eta.

Beste galdera mota batzu ere eginak ditut; esate baterako Nafarroako Gobernuko Zerga Kudeaketako Zerbitzuko Zuzendaria den Mikel Aramburu jaunak dioenez, zerga ordaintzera ihazko urte osoan, eta euskaraz soilik egindako BI IDAZKI aurkeztu zen; eta aurren oraindik bat bakarra. Euskara soilan egindako testamendurik ez da ordea aurkeztu bi urte hauetan. Zergatik ote?

Ez da txiripa edo kasualitatea. Erantzuna soziolinguistikaren alorrera doakigu zuzen zuzenean. Eta alor hortako erantzunera garamazki nor beraren arazoetan, nor beraren etorkizuna, zorrak eta bete beharrak ukitzen direnean, orduan azpi azpian ziurrera jotzen dugulako, eta ziurtasuna oraindik gure subkonszientearen diglosia horrek espainol edo frantsesean aurkitzen du. Agian ez gaude oraindik Afrikara soldaduskara joandako erdaraz idazten duen euskaldun hertsiarengadin hain urruti, Don Juan San Juan Iruñeko notaria ohia ez zegoen bezala...

Nafarroako Gobernuoko Erregistro Orokorreko arduraduna den Karlos Larraia jaunak ordea beste berri bitxia eman digu, eta neurriren batean esaten ari garen gehienarekin kontrari jarria iduri lezakeena; hain zuzen ere erregistro orokor delako hortan sartzen diren dokumentu eta eskariatatik %5.etik 10.era euskaraz sartzen dela; elebiduna horietatik erdiak baino gehiago eta batez ere eskaria eta subentzio eta ariketa kulturelei dagokionez, baina baita ere udalen harremanei dagokionez erruz eta azkar ugaritzen ari dela euskararen erabilpena. Bera eta bere lankidea euskara ikasteko egunean bi ordu ematen hasiak omen dira.

Ezin ahaztu halere bai Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean, nola Hazienda Foralekoan, nola eskurrauen barrutian, ez zeukatela euskararen erabilpenari buruzko zenbaketarik, ezta ere kriterio zehatzik. Gehienetan itzultzaile ofizialen menpera erortzeko zorian izaten dira. Eta

ezagunak dira baita ere euskaraz idazkia egiteagatik itzultzaileari ordaina eman behar izan dion nor edo noren kezak.

Egoera aztergarria benetan! Garai batean aldizkariak euskaraz egitea, edo egiten hastea, Damaso Intza hasi zen bezala, 1913.an ez zen erraza; ondorean irratiak, telebista bera eta egunkaria ere zailak, guztiz zailak diren bezala. Horiek denak sortu ziren eta badiraute; buletinak ere euskaraz egiten dira egunero eta euskara mota bitxi eta zaila sortzen eta lantzen ari dira.

Baina halere nor beraren eskubideak, etorkizuna eta ahalmena tajutzen eta bideratzen dizkionak euskaraz idaztea oraindik zailagoa da... gogoan izan behar da mendeak daramazkigula euskaraz ezkondu esate baterako eleizan eta gero espainolez edo frantzesez idazten eta mendeak ez dira berehalakoan ahazten.

3. AZKENAHIAK ETA TESTAMENDUAK. NAFARROAKO EGOERA

Baina idazki publiko edo notaria izkiriaturatan ordea, bada bitxitasun bat euskarari dagokionez. Azkenahi edo testamenduei dagokiena.

Hizkuntza autonomikoen egoera berezia, Konstituziotik eta Estatu-tuetatik dator, hemen Espainiako estatuan. Bai Kataluñiari edo Euskal Komunitate Autonomoari dagokionez, edo baita ere Galizari edo beste edozein hizkuntzaren egoerari buruz. Hizkuntza horiekiko diren eskubide guztiak Konstituzioaren beraren artikulua edo ataletako oinarritatik abiatuak dira...

Baina Nafarroako Foru Berria lehenagokoa da, eta lehen zen bere hartan dirau. Bere 192.legeak hona zer dioen: Nafartarrek beren azkenahia euskaraz egin ahal izanen dute.

Ondoren, eta exkurrauren aurrean egin nahi baldin balitz azkenahi hori, eta exkurrau horrek euskaraz ez baleki, lekukoak behar izanen direla eta abar baldin badio ere, horrek guztiak ez dio inolako indarririk kentzen lehenengo eskerari.

Azkenahia edo testamendua ez baita bakarrik eskuarran baten aurrean egiten ahal. Badaude beste tankerko azkenahiak ere, esate baterako "olografoa" deitzen dena, guztira ezkuz azken borondatzea ezarri nahi duenak idatzia alegia; edo Nafarroan baita apaizaren aurrean edo lekukoaren aurrean egindakoa ere, egoera larrian aurkituz gero.

Orduan bada nafartarrok azkenahia euskaraz egiteko ahalmena dugu, eta inolako lurralde mugarik gabe. Horrek esan nahi du orduan, nafartar batek bere testamendua euskaraz Madrilen egiten badu ere baliaduna

dela. Baita atzerrian egiten baldin badu ere. Bai exkuarruaren aurrean egiten badu edo olografoa edo beste mota batetakoa egiten badu ere.

Bai Konstituzioak, nola Estatutuek eta Nafarroako Amejoramentuak beraien artean —denak—, lurralde mugaketa edo oinarria ipintzen dute, territorialitatea. Konstituzioak hizkuntzaren ofizialtasuna aipatzerakoan gaztalanaren ofizialtasun orokorraz eta jakin beharraz gainera, beste hizkuntzak ERE ofizialak izanen direla dio, zein bere lurraldean eta bakoitzaren estatutoak eratuko duen erara. Estatuto eta Amejoramentuak oinarri hori dute abiapundu. Baina gainera, jakina den bezala Amejoramentuak bere 9.artikulu tamalgarrian Nafarroaren barruan bi zati sortzen ditu; gero Vasconcearen legeak gainera beste eremu mixto deitutako sortzen du. Baina guzti horiek ez dute ez ukate eta eztaere aldatu Foru Berriko 192.legeak ematen duen eskubidea. Kriterio edo eskubide pertsonala, ez territoriala, zauden edo dagoen tokitik at den eskubidea. Ez bakarrik konstituzioaren aurrekoa edo lehenagokoa, baizik eta baita ere gainditzen duena.

Nafarroako Foru berriaren lege hau Francisco Salinas Quijada, idazle oparoak bere Derecho Civil de Navarra Bildumako VI liburuko edo tomoan azterzen du (297. orrld.). Lakarra eta Santamaria, Foru berria egin zen baino lehengoko aztertzaileak aipatu ondoren, foru berria egiteko erabili ziren testuak ere ematen ditu. 1.970. lehen urteetan ari gara. Legegintza hortan Diputazioak izendatutako batzorde bereizi bat aritu zen eta gero Estaduko jefaturatik zuzen zuzenean ontzat hartu zen, Españaiko Gorteetatik ere igaro gabe, ez zezaten eskurik sar.

Hori baino lehen, Lakarra eta Santamariak euskarari dagokionez uste zutena da euskara, nafartarrontzat eta Españaiko estaduari dagokionez hizkuntza arratza bezalatsu erabil zitekeela. Baina esandakoetan gelditu zen eta dirau. Ez dago argi nork idatzi zuen lege horren edukina. Nire ustea da, Gartzia Granerok berak egin ote zuen edo.

Ondoren Tuterako Salinas jaunak aipatzen du Nafarroako mendialdean azaltzen direla testamendu elebidunak lege hori baino lehen eta agian ohitura horrek sorrerazi zuela lege hori. Ezin izan dugu ziurtatu eta egiaztatu holakorik.

Gehiago oraindik; Foru Berriaren aztertzaile den Fernandez Urzainki epaile jaunak eta bere taldeak egin dituzten azterketatan ez da jurisprudentziako berririk ematen.

Aranzadi editoriala bera, Espainia guztiko legeak argitaratzen dituen alegia ere, galde egina dugu ea ba ote den lege honi buruzko epairik edo jurisprudentziarik eta ez da bat bakarrik ageri. Galdetu ere egin diet Editorialekoei beraiei, baina berririk ez dutela eman dute erantzuna. Hori ber bera egiaztatu du baita ere Aranzadin lan egin eta Iruñeko abokatuon dekanoa den Angel Ruiz de Erentxun jaunak.

1.906-ko epaiketa baten berri eman digu Andres Urrutia exkurrau jaunak, Tolosako espainiolez egindako testamendu bati buruzkoa alegia, euskaraz irakurri zitzaielako edo ez zutelako behar bezala ulertu edo holako arazoengatik sortutako istilurengatik ordea; baina ez euskaraz egina zegoelako.

Azkenean jaunok laburbiltzeko lan laburra:

Lege bitxi bat, oso gutxitan erabilia, gutxiegitan, euskaraz azkenahia egiteko eskubidea nafartarroi ematen diguna.

Galdera zera da, ea zergatik euskaraz dakitenak, euskara erabili ere egiten dutenak, askotan euskal giroko inguruan bizi direnak ere, ea zergatik horiek ere mailegu bat sinatu behar dutenean, badaezpadaere —horixe baita hitza— badaezpadaere, zergatik erderara jotzen duten.

Erantzuna, jaun-andreak, ez dago legean.